

## **LURREKO, ITSASOKO ETA ITSASERTZEKO BIODIBERTSITATEAREN ARLOAN JARDUERAK GAUZATZEKO 2017KO DIRU LAGUNTZEN DEIALDIA ARGITARATU DU FUNDACIÓN BIODIVERSIDAD FUNDAZIOAK**

**Internet webgunea:** <http://fundacion-biodiversidad.es/es/convocatorias/convocatorias-de-ayudas/convocatoria-de-ayudas-2017>

### **1.- DEIALDIAREN XEDEA:**

Biodibertsitateari eta ingurumenari loturiko jardueren gauzatzeari laguntzea, beti ere FBk bere Estatutuetan zehaztuta dituen helburuekin bat badatoz eta zehaztutako irizpideen arabera laguntza jasotzeko egokienak direla erabakiko balitz.

FBko Patronatuak urtero onartzen duen Ekintza Plana osatzen duten Ekintza Ildoekin zuzenki loturiko jarduerak babestuko dira soilik. Gaurko egunean, aipatu ildoak ondokoak dira:

#### **1. Lurreko biodibertsitatea.**

- LB1. Lurreko biodibertsitatearen eta ekosistemen zerbitzuen inguruko alderdi sozial, soziologiko eta juridikoei buruzko ezagutza eta berrikuntza babestea.
- LB2. Hegazti eta Habitaten inguruko Zuzentarau europarren aplikazioa eta abeltzaintza, arrantza, ehiza, turismo, baso-erabileraren eta beste jardura batzuen kudeaketa jasangarria Natura 2000 Sarean.
- LB3. Konektibitatea eta berriztapen ekologikoa. Paisaiaren kontserbazioa. Boluntarioritza ibaietan.
- LB4. Kontserbazio jarduerak gauzatzea desagertzeko zorian dauden espeziekin.
- LB5. Animalia exotiko inbaditzaileen prebentzioa eta kontrola eta pozoiauren aurkako borroka.
- LB6. Bertako arraza eta barietateen kontserbazioa.
- LB7. Biodibertsitatea babesteko erreminta berriak bultzatzea (lurrealdearen zaintza, habitat bankuak, etab.).
- LB8. Babestutako naturagunetan esku-hartzea (Parke Nazionalak, Biosferaren erreserbak, RAMSAR hezeguneak, etab.).

#### **2. Itsasoko eta itsasertzeko biodibertsitatea.**

- IB1. Itsasoko eta itsasertzeko biodibertsitatearen eta ekosistemen zerbitzuen inguruko alderdi sozial, soziologiko eta juridikoei buruzko ezagutza eta berrikuntza babestea. Itsasoko Natura 2000 Sarearen habitaten eta espezieen inbentarioak eguneratzea.
- IB2. Lurreko eta itsasoko ertzaren kudeaketa integratua.
- IB3. Hondartza eta itsasbazterretako baliabide naturalak balioan jartzea

#### **3. Klima aldaketa eta ingurumen kalitatea.**

#### **4. Ekonomia eta enplegu berdea.**

#### **5. Nazioarteko harremanak.**

### **2.- ESKARIAK AURKEZTEKO EPEA**

**2017ko ekainaren 30a arte, 14:00etan.**

### **3.- DIRU-LAGUNTZEN EZAUGARRIAK**

#### **3.1.- Egikaritze epea:**

Proiektua egikaritzeko epea **urtebetekoa izango da, gehienez**. Epe handiagoak aintzat hartuko dira ere, eskaria aurkezten duen entitateak zioa justifikatzen badu.

### 3.2.- Diru zuzkidura:

Eskari bakoitzak jaso dezakeen gehieneko zuzkidura **50.000 eurokoa izango da**.

Emandako zenbatekoak ezingo du aurkeztutako aurrekontu guztiaren % 70a gainditu.

Arlo publikoko entitateen kasuan, proiektuen finantzazio partekatuetan ezingo du % 50a gainditu.

### 3.3.- Finantza daitezkeen gastuak: (Zehaztasun gehiago Oinarri Arautzaileen 16. Oinarrian)

3.3.1.-Finantza daitezkeen gastuak izango dira inolako zalantzarik gabe laguntzaren xede den jarduerari loturiko horiek, bere gauzatzearentzat beharrezkoak diren horiek eta egikaritze epearen barruan egin behar izandako horiek. FBk onarturiko kronograma baino lehenago eginiko gastuak ez dira aintzat hartuko, FBrekin eginiko lehen bilerari loturikoak eta aurrerapenak jaso ahal izateko FBk eska litzakeen horiek salbu.

Orokorrean, finantza daitezkeen gastuak izango dira:

- Pertsonal kostuak: Laguntzaren xede den jarduera gauzatzeko eskusiboki eta bereziki kontraturiko langileei loturiko gastuak % 100ean finantza daitezke, beren lan kontratuak aurrekoa zehazten duenean. Berezko langileen kostua proiektuari eskainitako ehunekoaren arabera finantza daiteke, memoria teknikoan zehaztutakoaren arabera; ezingo da, inolaz ere, lan kostuaren % 85a gainditu.
- Bidaiak eta mantenua.
- Kanpoko laguntzaileak: Azpikontratazioak egiteko aukera egongo da, beren portzentajeak proiektuaren zenbatekoaren % 50a gainditzeko ez badu. Azpikontratutako jarduerak diru-laguntzaren % 20a gainditzeko badu eta berari dagokion zenbatekoak 60.000 euroak gainditzeko baditu, azpikontratazioak baldintza bereziak bete beharko ditu. (Ikus Oinarri Arautzaileen 11. Oinarria). Kontratazioaren zenbatekoa 18.000 € eta 50.000 € bitartean dagoenean, aukeratutako hornitzailearen justifikazioa aurkeztu beharko da. Zenbatekoak 50.000 euroak gainditzeko baditu, kontratazioa alde aurretik egin beharko da eta FBaren berariazko onarpena jaso beharko du.
- Material inbentariagarria.
- Material suntsikorra.
- Zeharkako gastuak.
- Beste gastu batzuk.

## 4.-PROZEDURA

Deialdi honek bi fase ditu, "eskari" fasea eta "lehen aukeraketa" delakoa.

### 4.1.- I. FASEA: ESKARI FASEA:

Eskaria egiten duten pertsonak "online" inprimakia bete beharko dute, eskatutako datuekin, ondoko loturaren bidez:

<https://aplicaciones.fundanet.es/Biodiversidad/convocatorias/contenido/Midentificacion.asp>

**Eskaturiko dokumentuak** (Fundazioak helarazi dizkigun formatu ofizialeen arabera):

- Eskaria (entitatearen legezko ordezkariak sinatua)
- Esparru logikoa
- Aurrekontu zehatza
- Aurreikusten diren Giza Baliabideak
- Proiektuaren kronograma

- Dagokionean, Estatu edo komunitate mailako programa edo saretan entitateak duen partaidetza egiaztatzen duten dokumentuak.

**OHAR GARRANTZITSUA:** FBk eskari bakarra onartuko du eskatzaileko. Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordeak (IGBB), ondorioz, eta deialdian ezarritako irizpideekin bat, jasotako eskarien lehentasun ordena erabakiko du, ondoren zehaztutako epeen barruan, UPV/EHUren berrespen ofiziala jaso dezan.

**Eskariak UPV/EHUen aurkezteko prozedura:**

AZKEN EGUNA	ARDURADUNA	IZAPIDEA
2017ko maiatzaren 22a Ezin bermatu IGBBk data horretatik aurrera jasotako eskariak baloratuko dituenik	Ikertzaile nagusia	"I. Eranskina" bidaliko da <a href="mailto:convocatorias.dgi@ehu.eus">convocatorias.dgi@ehu.eus</a> helbidera, ikertaldea azter dadin.
2017ko maiatzaren 31	Ikerketaren arloko Errektoreordetza	Ikertaldearen eta berezko langileen kostuaren azterketaren emaitza jakinaraziko da.
2017ko ekainaren 2a	Ikertzaile nagusia	Dokumentu guztiak <a href="mailto:convocatorias.dgi@ehu.eus">convocatorias.dgi@ehu.eus</a> helbidera bidaliko dira, IGBBk balora ditzan. Partaide guztiek IGBBren erabakia jasoko dute, bidezkotzat jotzen dituzten oharpen guztiak egin ditzaten.
2017ko ekainaren 29a	Ikerketaren arloko Errektoreordetza	Ikerketaren arloko Errektoreordeak sinaturiko eskaria bidaliko dio aukeratutako eskariaren ikertzaile nagusiari, beste dokumentu guztiak batera aurkez dezan.
2017ko ekainaren 30a, 14:00h.	Ikertzaile nagusia	ESKARIAK AURKEZTEKO I. FASEAREN AMAIERA. FBren webgunean sartu eta dokumentu guztiak gora kargatu. Dokumentu guztiak bidali ondoren, egiaztagiria inprimatu eta <a href="mailto:convocatorias.dgi@ehu.eus">convocatorias.dgi@ehu.eus</a> helbidera bidali, dokumentu guztiak batera.

**4.2.- II. FASEA: LEHEN AUKERAKETA FASEA:**

Ebaluazio Batzordeak jasotako eskariak aztertu eta **erabaki bat hartuko du, lehen aukeraketan hautaturiko proposamenekin. Proposamen horiei dagokienean, ondoko dokumentu digitalizatuak eskatuko dira:**

1. Diru-laguntza onartzeko eskutitza.
2. II. faserako eskari inprimakia.
3. Aurrekontu zehatza II
4. Kronograma zehatza II.
5. Giza baliabideak II.
6. Beharrezko administrazioaren baimenak.
7. Sortze dokumentua, estatutuak edo fundatze akta (**Unibertsitatearen Estatutuak**)\*.
8. Ordezkaritzaren izaera egiaztatzen duen botere edo dokumentua (**Ikerketaren arloko Errektoreordearen izendapena**)\*
9. Zerga-betebeharren betetzea egiaztatzen duen administrazio ziurtagiri positiboa.\*
10. Gizarte Segurantzari dagozkion betebeharren betetzea egiaztatzen duen administrazio ziurtagiria.\*

(\*UPV/EHUko Ikerketaren Arloko Errektoreordetzak ematen dituen dokumentuak)